

## Euskaltzeleen Biltzarra Hondarribian

*Hondarribia*, 19. zk., 1988-03: 7.

"Eskual Zaleen-Biltzarra" Hondarribian 1901an jaio zela diote batzuk,<sup>1</sup> eta besteak,<sup>2</sup> berriz. Hendaian; eta bigarrena, 1902koa, izan zela Hondarribian eratu.

Nolanahi, seigarren batzarra,<sup>3</sup> ere hemen, Hondarribian, antolatu zen 1906an euskararen defentsa eta zabalkunde Euskalerra osoan batera jartzeko erabakorra gertatuko zena.

Hamasei urte gero onartuko baitzuen Euskaltzaindiak orduko proposamena. Baina esaten hasi garen bezala, Eskual-Zaleen-Biltzarreko lagunek Hondarribiko Udaletxean bildu ziren 1906go irailaren 13an, Maximo Laborda jauna hiriko alkatearen baimenarekin, eta hemen, Arturo Campion jaunaren lehendakaritzapean, adierazten da "Espainia aldeko eskualdun Diputazioen Akademia bat eratzeko asmotan direla", eta ea. !) "Eskual-Zaleen-Biltzarra" desegingo ote duten Akademia berria indartzeko (Campion); 2) ez duela hala izan behar, hark Akademia baten lana egingo duela, eta Biltzar honek beste lan praktiko bat: "euskararen iraute eta zabaltzea" (Charles Petit); 3) bi erakundeak behar direla eta "begi onez elkar ikusiz behar dutela biak lan egin" (Juanxuto jauna, sendagilea); 4) "Akademia eta Biltzarra, bakoitza bere bidetik jarrai dezaketela, eta ona izango litzaketela Akademiak "frantses eskualtzale zenbait aukeratuko balitu eskualde honetako hiru probintzietatik, eta hauek Biltzar honekin loturak sortu, honi indar eta bizitasun gehiago emateko" (Elissague apez jauna); 5) Julio de Urquijok ere sentipen bera adierazten du beste bi lagunekin batera.

Campion jaunak pozik entzuten ditu esandakoak.

Eta batzarra erabaki anaikor honekin amaitzeko, hauteskunde bidez aukeratzen dira 1906-1907rako kargudunak: Joanes de Jurgain, lehendakaria; J.P. Elissague eta Isaak Lopez-Mendizabal lehendakariorde; Piarren Garacotche, Julio de Urquijo, Serapio Mujika, Frédéric de Saint-Jayme, Théophile Barran eta Carmelo Echegaray, batzarkide; lehen idazkari: Martin Landerretche; idazkari, Clément d'Andurain, eta diruzain: George Lacombe.

Erabakitzen da, azkenik, hurrengo urteko bikura Hendaian egingo dela. Gero, denak bilduko direla "Miramar" deritzan Ostatuan bazkari eder baten aurrean, eta Landarretche idazkari jaunak izenpetzen du akta Hondarribian, 1906go irailaren 20an.

*Euskaltzaindia*, denok dakigun bezala, Oñatiko Kongresutik sortu zen 1918an, eta bere harategiak hamabiko kopurua ezartzen zuen akademikide izateko; Hauetako lau Oñatiko batzar berean izendatuak izan ziren; Resurrección María de Azkue, erakundearen lehenengo lehendakaria; Arturo Campión, Luis Eleizalde eta Julio de

<sup>1</sup> *Auñ.*, eskua, 270.

<sup>2</sup> *Biografía de tres figuras nacionales vascas*, M. de U., p. 32: referencia de Manuel de Irujo: "En el Congreso celebrado en Hendaia en 1901", "en la de Hondarribia el año siguiente" ... *Alderdi*, noviembre, 1954.

<sup>3</sup> RIEV. 1, 99-100; "Eskual-Zaleen-Biltzarra" / 1906eko bil-aldia.

Urkixo. Gainerako zortziak hautatzeko batzarre berezia ospatu zen Gipuzkoako Aldundiko Jauregian 1919go irailaren 21an; Domingo Agirre, J. Blaise Adema apaiza (Gratoen Adema "Zalduby" poetaren iloba), Jose Agerre, Pierre Broussain, Joan Bautista Eguzkitza, Erramun Intzagarai, Pierre Lhande eta Arraimun Olabide.

Baina honetarako garrantzitsua izan zen Eskual-Zaleen-Biltzarrak Hondarribian 1906go irailak 20 zituela hartu zuen adostasunezko erabakia.